

IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA

Iruñerriko baterako zerbitzurako eremuko taxi zerbitzua arautzen duen ordenantza

Iruñerriko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak, 2013ko urriaren 29an egindako bilkuran, Iruñerriko baterako zerbitzurako eremuko taxi zerbitzua arautzen duen ordenantzaren 10, 11, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 22, 24, 25, 26, 27, 31, 34, 36, 37, 38, 41 eta 44. artikulua, xedapen iragankorrak eta azken xedapena aldatzea onetsi zuen hasiera batean.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, onetsitako aldaketa jendurrean egongo da hogeita hamar egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.

Inork alegaziorik egin gabe igarotzen bada jendurreko epe hori, ordenantza behin betiko onetsi eta osorik emango da argitara Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 30ean. Lehendakaria, José Muñoz Arias.